

# Lanbide berriak. Zer da youtuber bat?

Lanbide berriei buruzko ariketa batzuk dituzue jarduera honetan, baina hori baino lehenago komentatu puntu hauek:

- Lanbide berriren bat ezagutzen al duzue?
- Etorkizuna daukatela iruditzen al zaizue?
- Egingo al zenukete?



## Ikusi bideoa



Bideoa ikusi aurretik, osatu esaldi hauek aukerarik egokiena erabilita. Gero, jarri bideoa, nola egin duzun ikusteko.

Bakoitzari \_\_\_\_\_ jartzen zaionari buruz.  
 Horien arteko \_\_\_\_\_ dirua da.  
 Ez da jarraitzaile kontua \_\_\_\_\_ da.  
 Zein da bideo bat egiteko \_\_\_\_\_ ?  
 Super Txoperen bideoak \_\_\_\_\_ bideoak dira.  
 Baina blogger bat bezala, jolastu, gerturatu, \_\_\_\_\_ , egin txistea, ez dakit zer...  
 Nik eman diodana izan da erritmoa, tonua, bueno, \_\_\_\_\_ hori.  
 Baina, testua edo esaten duena, hori \_\_\_\_\_ batek markatzen zuen.

**ikustaldi-kontua  
 umorezko  
 sudur-puntan  
 gidoi  
 prozesua  
 gorpuzte  
 urrundu  
 muga**

## Irakurri testua

Irakurri testua eta aukeratu hutsune bakoitzean dagokion hitza.

Arotzaren, igeltseroaren edo irakaslearen lanbidea urteekin aldatu egin da: hasierako gailu haiek berritzen joan dira eta, teknologia berriei esker, garapen handia jasan dute. \_\_\_\_\_ , arbelak orain ukimen-pantailak dira; zerrak elektrikoak... Baina ez hori bakarrik, bidean lanbide berriak ere sortu dira. Zer da youtuberra, gamerra edo community managerra? Askok agian jakingo duzue, baina beste askok ez. Eta gure aitona-amonek? "Gure garaian ez zegoen horrelakorik", erantzungo digute.

Gamerra bideo-jokoak probatzen dituen pertsona da, jokoak ondo funtzionatzen duen eta zein hobekuntza behar dituen erabakitzen du. Community managerrak, \_\_\_\_\_ , enpresa baten on-line komunitatea eraikitzen eta kudeatzen du, Interneten marka bat sortzen du, bezeroekin harreman egonkorrak izateko. Youtuberrak Youtube ataria du abiapuntu: bideoak zintzilikatzen ditu bertan eta izandako ikustaldiengatik ordaintzen zaio.

Nerea Arriolak (Donostia, 1988) SuperTxope youtuberraren azalean arrakasta handia lortu du eta, orain, EITBko 'Euskalduna naiz, eta zu?' saioan euskaldunoi buruzko bakarriketak egiten ditu, Katixa izeneko pertsonaiaren paperean. Bera aktorea eta erizaina da, \_\_\_\_\_ bi pertsonaia horietan youtuber baten larruan sartzen da. Guk lanbide honen inguruan galdetu diogu.



**ABIAPUNTUA: EUSKARA**

Youtube 2005. urtean sortu zen, eta une honetan munduko youtuberrik famatuena edozein komunikabide bako ikusle gehiago ditu; Pewdiepie da nabarmen horietakoa, 53 milioi harpidedun bako gehiago ditu, eta hilean 350 milioi ikusle inguru. HolaJulen, DespertaVlog, Probatxoa, El Tornillo, Gabi dela Maza... Askok dira euskal youtuberrak, baina guztiek ez dituzte bideoak euskaraz egiten. "Niri lagun batzuek esan zidaten gazteei zuzendutako proiektu bat martxan jarri nahi zutela eta,

youtuber baten azalean sartzeko prest ote nongoen. Nik baietz erantzun nien", kontatu digu Arriolak. Egun oso bat pasatu zuen Youtuben, bideoak ikusten eta jendearen estiloari erreparatzen: "Orokorrean, jende gaztea da, hainbat profiletakoa, baina guztiek energia handia dute".

Ez zuten gaztelaniaz egiteko aukera planteatu ere egin. "Jarraitzaile gehiago edukiko dituzte gaztelaniaz? Zergatik ez dugu guztiok txineraz egiten? Bakoitzak bere hizkuntza erabiltzen du eta, \_\_\_\_\_, euskal komunitatea uste duguna baino handiagoa da. Bideo bat euskaraz ere asko zabaldu daiteke", kontatu digu. Askok ikustaldi gehiago izateko aukeratu dute gaztelania, baina hori bakoitzaren aukera da.

**SUPER TXOPE ETA KATIXA**

Nerea Arriola aktorea da, eta bi youtuberren azalean sartu da: SuperTxope eta Katixa. Lehenengo pertsonaia, posta bidezko bozka promozionatzeko egindako iragarkitik sortu zen. "Youtuber bat egitea pentsatu genuen eta jendeak identifikatzeko erraza zen norbait sortu genuen", azaldu digu. \_\_\_\_\_, Super Bat telebista-saioan oinarritutako izena sortu zuten, SuperTxope: neska maitagarria, irribarretsua, bihurria eta kritikoa da.

ETBn 'Euskalduna naiz, eta zu?' saioan, \_\_\_\_\_, Katixa izeneko youtuberra da. "SuperTxope baino gaiztoagoa da; \_\_\_\_\_, denetarik du, guztiok bezala. Gidoiari jarritu diot bietan, baina neuk gorpuztu ditut", kontatu digu.

**HELBURUA**

Zaletasunez edo lanbidez youtuber izatearen arteko muga dirua da: "Jarraitzaile-kopuruak baino gehiago, ikustaldi-kopuruak du axola, baina dirua irabaztea ez da hain erraza. Hori egin ahal izateko, kontua "monetizatu" behar dugu. Zer den hori? Youtuberi publizitatea jartzeko baimena ematea. Hori egin gabe ez dugu dirurik irabaziko", esan digu aktoreak. AdSense Googlek sortutako publizitate-sistema bat da, eta klik-kopuruaren arabera neurtzen dira irabaziak, baina AdSensek ez ditu euskarazko edukiak monetarizatzen. Ez du euskara hizkuntza bezala identifikatzen; \_\_\_\_\_, ez du bideora iragarkirik bidaltzen.

SuperTxoperekin, Nerearen helburua lan txukuna egitea izan da, eta ahalik eta gazte gehienarengana heltzea. "Ikustaldiak ere izan nahi genituen, baina ez genuen hortik dirua irabazteko asmorik. Katixarekin, \_\_\_\_\_, helburua formatua telebistara eramatea izan da, eta ikusle-kopuruak du garrantzia", adierazi digu.

Eta zu? Youtuber izango zinateke? Zeri buruzko bideoak egingo zenituzke? Gamer edo community manager bezalako lanbideak ezagutzen dituzu? Zein izango da etorkizuna?

- |           |               |               |
|-----------|---------------|---------------|
| (1)       | (4)           | (7)           |
| Ordea     | orduan        | berriz        |
| Nahiz eta | horretarako   | beraz         |
| Adibidez  | beraz         | behintzat     |
| (2)       | (5)           | (8)           |
| aldiz     | nire ustez    | beraz         |
| hortaz    | dena dela     | hala ere      |
| behintzat | behinik behin | hortaz        |
| (3)       | (6)           | (9)           |
| bestalde  | Bestalde      | hori dela eta |
| baina     | Gainera       | bitartean     |
| aldiz     | Hala ere      | behintzat     |
|           |               | (10)          |
|           |               | bestalde      |
|           |               | berriz        |
|           |               | beraz         |



## Erantzunak

### Ikusi bideoa

Bakoitzari (sudur-puntan) jartzen zaionari buruz.

Horien arteko (muga) dirua da.

Ez da jarraitzaile kontua (ikustaldi-kontua) da.

Zein da bideo bat egiteko (prozesua)?

Super Txoperen bideoak (umorezko) bideoak dira.

Baina blogger bat bezala, jolastu, gerturatu, (urrundu), egin txistea, ez dakit zer...

Nik eman diodana izan da erritmoa, tonua, bueno, (gorpuzte) hori.

Baina, testua edo esaten duena, hori (gidoi) batek markatzen zuen.

### Irakurri testua

Adibidez

Aldiz

Baina

Horretarako

Nire ustez

Gainera

Berriz

Hala ere

Horidela eta

berriz

### Transkripzioa

#### 1. Zer da youtuberra?

Youtuber bat da pertsona bat gai baten inguruko bideoak egin, editatu eta Youtubera igotzen dituena. Hori da youtuber bat. Orduan, zeri buruz hitz egiten du? Bakoitzari sudur-puntan jartzen zaionari buruz.

#### 2. Nola bihurtzen da zaletasuna lanbide?

Hobbie bat edo lanbide... Horien arteko muga dirua da. Nire ustez, dirua da. Behin hortik bizi ahal baldin baduzu, hortik aurrera ia bai, hori, dirua. Zenbat jarraitzaile? Ez da jarraitzaile-kontua, ikustaldi-kontua da. Ikustaldi kontua da, gero eta ikustaldi gehiago, Youtubek dirua emango dizu. Baina ez da hain sinplea, e? Lehenengo zure kontua monetizatu behar duzu. Hau da, eman behar diozu baimena Youtuberi publizitatea sartzeko... Hau da, ez da hain sinplea: Super Txoperekin ez dugu dirua irabazi nahiz eta ikustaldi asko eduki, ez dugulako kontua monetizatu. Orduan, ez da 'benga bideo bat igoko dut eta listo!' Requisite (baldintza) batzuk daude, gero monetizatu behar duzu zure kontua, gero hori, publizitatearekin irabazten da dirua. Orduan, markak zurekin harremanetan jarri behar dira, ez da hain sinplea... Baina hasi behar zara monetizatzen zure kontua eta hori Youtuben bertan zure kontuan sartu eta hor, iskinan dagoen apartadotxo batean monetizatu behar den zerbait da. Bestela ez du balio.

#### 3. Zein da bideo bat egiteko prozesua?

Super Txoperen bideoak umorezko bideoak dira. Umorezko bideoak gaur egungo euskal panoramaren inguruko umorezko bideoak. Prozesua, bada gurea, lantalde bat garenez, erabaki zeri buruz hitz egin; baita zein Youtubeko hizkuntzatan hitz egin (ere). Hau da, edo challenge bat egin, dekalogo bat egin... Hor, Youtubek hizkuntza propioa dauka. Orduan, denetarik aurkitu zenezake; eta gero, edozein pertsonak egin dezakeen zerbait, tripode bat, kamera bat ez duena sikiera izan behar 'super kamera' bat, ez, ez, ez, kamera bat eta foko pare bat iluminatzeko. Yasta eta mikrofono bat. Hori bai. Eta gero, editatu, editatu. Gainera, grabatu, jolastu... Zerbait dibertigarria izan behar du, orduan egin behar duzu jolastu. Hori baldin bada zure helburua. Hau da, blogger bat bezala. Beste zerbait baldin bada, ari baldin bazara zerbait egiten, bueno grabatu eskuak edo... Baina blogger bat bezala, jolastu, gerturatu, urrundu, egin txistea, ez dakit zer... Horrela. Eta gero, editatu eta Youtubera igo.

Bai, egia esan, askatasun asko (handia) eman zidaten niri, baina nahiko fidela izan naiz gidaira. Nik eman diodana izan da erritmoa, tonoa, bueno, gorpuzte hori. Nahiko fidela izan naiz nire 'cosecha propia' esaten dena da amaierako "Aguri!" hori, guztiz nirea da, eta, bueno, beste zerbait edo... Baina, testua edo esaten duena, hori gidoi batek markatzen zuen.

Katixa, gainera, da EITBrako, eta gidoi bat dago, aktore bat naiz.